Larunbata 12.04.28
EL CORREO



Ramon Saizarbitoriak 'Martutene' lana kaleratu du, bere azkeneko eleberria.

Bost pertsonaia, hiru liburu, sinbolo bi, egilea eta gizartea

Jon Kortazarrek Ramon Saizarbitoriak argitaratu berri duen 'Martutene' liburuaren kritika eskaintzen digu-

KRITIKA

Emozio handiz irakurri dut, argitaratu aurretik irakurri ere, Ramon Saizarbitoriaren 'Martutene' eleberria, mundu oso baten metafora. Oso zaila da, dudan espazio meharrean, nobelaren mamijoria batzea, biltzea eta laburtzea. Alferrikako lana, zinez. Baina liburuaren muina zein den esan beharko banu, izenburu gisa jarritako bost puntu horietan deskribatuko nuke.

Bost pertsonaia, lehenlehenik. Bikote bi: Iñaki Abaitua eta Pilar medikuak, hura ginekologoa; Martin idazlea eta Julia itzultzailea, eta Lynn, soziologo estatubatuarra. Bikoteen harremanak zalantzan daude, puskatzeko edo konpontzeko zorian. Lynnek, Abaituarekin sortuko duen erlazioan, ekintzaren metxa piztuko du, eta, zerbait azpimarratu beharko banu, 24. kapitulua miresgarria dela esango nuke. Nobela horretan Ramon Saizarbitoriak historia –gure Historia– hartu du ardatz, eta kontakizunaren matazak indarra hartu du nobela osatzeko orduan. Badu hasiera, eta batez ere, badu bukaera dramatikoa. Pertsonaien bizitzan oinarrituriko nobela dugu. Bikote biek, azken batean, Moebiusen zirrinta osotzen dute. Abaituak eta Pilarrek Ramon Saizarbitoriaren interesgune bat osatzen dute: emakumea ezagutzeko ezintasuna; Martinek eta Juliak bere interesen beste puntua: gizartearen errepresentazioaren muga.

Hiru liburu testuaren ardatz gisa. Lehena, nola ez?, Max Frischen 'Montauk' (gazteleraz, 2006, Fernando Arambururen itzulpenean) autobiografia da. Amodioaren eta desamodioaren arteko nobela hotz eta sentibera era berean, Max Frisch beraren eta Lynn neska gaztearen arteko harremana kontatzen duen disekzio hotz eta, era berean, barneak astintzen dituena. Neurri batean, 'Martutene' nobelako pertsonaiek, Abaituak eta Lynnek, berriz bizi duten harremana, gizon adinduaren eta neska gazte baten arteko harremana, euskal nobela honen kasuan ez hain hotz eta hertsia, maitasun istorioak gaina hartzen baitu, eta dramatismoa gailentzen baita. 'Montauk' liburua pertsonaia mailara igo du Ramon Saizarbitoriak. Nobelan garran-tzizkoa den bigarren liburua, 'Quijote' da, eta ez dakit nik egileak jakinaren gainean egin duen ala ez. Baina, errealitatearen eta fikzioaren artean egiten diren jokoak, batez ere Julia itzultzailearen munduan (batez ere 19. kapituluan, eta hor bai ari dela gure kulpa zainetatik gora egiten), dudarik ez dago Cervantesen lanean dutela abiaburua (zenbat liburutegi arakatzen dira 'Martutene' nobelan, zenbat nobela aipatzen?). Kontakizuna maila oso desberdinetan landua da, eta mailaketa horretan errealitatearen egoeraz egileak dituen zalantzak ageri dira. Nobelaren agerbiderako esangura-tsua den hirugarren nobela 'Madame Bovary' dugu, ez soilik gizakien harremanetan murgilduriko eleberria delako 'Martutene', baizik eta Flaubert zuzen-zuzenean aipatzen delako: «bere Flaubert miretsiak egiten duen bezala».

Sinbolo bi, nola ez? Ramon Saizarbitoriak maite ditu errepikapenak eta behin eta berriz agertzen diren elementu horiek mundu sinbolikoa osatzen dute. Bata Bordeleko aingeruaren aurrean maitaleek atera duten argazkia da. Zeinek eusten dio zeini? Aingeruak pertsona galdua edo pertsona galduak aingerua? Abaituak Lynn, edo Lynnek Abaitua? Bigarren sinboloa horri lotua ageri da. 'Flay Away' (Lauaxetak horrela deituriko poema itzuli zuen). Hegan egin, eta azken epilogoko hegaldiek nobelaren bide sinbolikoa uzten dute, baina irakurleak ikusi beharko ditu, ez baita nobelaren amaiera agertzeko ordua.

Ironian maisua da Ramon Saizarbitoria. Batez ere, ironia mingarria egiten duenean, eta bere buruaren aurka ari denean

Bere buruarekin inoiz konforme ez den idazlea: Saizarbitoria. «Madame Bovary c'est moi» esan bazuen Flaubertek, Ramon Saizarbitoriak ere esan dezake «Martutene c'est moi». Hor dira euskal idazlearen ikuspegiak eta sentipenak, izan nahiak eta pentsakizunak, izan zitekeena eta gertatu dena, ametsen mundua eta errealitatearen indarra, indarkeriaren aurrean izan dugun isiltasuna, eta gure erruak. Lehen esaldi tik 'Martutene' eleberriak 'Hamaika pauso' liburua dakar gogora: «Martin ezagutu zuen egunaz oroitu da Julia». Eta 'Hamaika pauso'n bezala, pertsonaien izenak berak dira: Julia, Iñaki Abaitua, Zabaleta bat Zabalegi oroitarazten duena. Edo fikziozko pertsonaiek (Florak, adibidez) Ramon Saizarbitoriaren beste eleberri batzuen (auto)erreferentzia egiten dute (hor dago ezkutuan 'Maitasuna eta Gerra', bidaia euskaratik gaztelaniara egin ondoren euskaran hartu duena etxea). Ironian maisua da Ramon Saizarbitoria. Batez ere, ironia mingarria egiten duenean, eta bere buruaren aurka ari denean. 'Martutene' egilearen lanaren laburpen bat da, edo nahi bada, hain handia denez kalitatea, summum bat.

Hor dira idazlearentzako hain garran-tzizkoak diren joera patetikoak, eta pertsonen miseriak, hor soziologia munduan egindako lanen laburpena (ez zen bada 'Nacer en Guipúzcoa' liburuko partaidea izan?, eta haur baten jaiotza ez ote da nobelan gertatzen den unerik hunkigarrienetariko bat?), hor euskaraz, euskal kulturaz eta euskal munduaz egindako hausnarketak fikziora ongi ekarriak, hizkuntza asko erabiltzeko joera, nahiz eta motelago agertu gauza bat bi aldiz –edo gehiago– adieraztekoestilo hain berea duen hori; janarien eta janzkeren deskripzio obsesiboak, egileak bai baitaki gizartean metafora nagusiak direla jakiak eta janzkerak. Hortxe, denen gainetik, errealitatea harrapaezina delako susmoa.

Biluzik, maskararik gabe

Zergatik egin zen Abaitua ginekologo? Emakumeak hobeto ezagutzeko omen, jakinda ezinezkoa izango dela ezagutza; zergatik da Julia itzultzaile? Errealitate den testuaren isla bat emateko, jakinda itzulpen batean ezinezkoa dela testuaren originala ematea. Horra nobelaren elementu garrantzizkoa: ezinezkoa zaigu ezagutzen duguna adieraztea, ezagutzen duguna ulertzea, eta gauzak horrela badira jarraitu egin behar da bidean.

Aldez aurretiko lanen laburpen eta garapen bada 'Martutene', beste zerbait ere bada. Nik uste dut bizitzaz eta heriotzaz Ramon Saizarbitoriak eskaini duen ikuspegirik aberatsena eta sakonena dela 'Martutene', jalotzearen misterioaz, eta baita heriotzaren misterioaz ere, orain arte agertu duen ikuspegirik poliedrikoena. Kapitulu askotan daude pertsonaiak buruz buru eta biluzik, maskararik gabe, direnaren pobrezia horretan, eta puntu horietan hitz egiten dute barrena hustuz.

'Martutene', baina, gizartea ere bada. Ramon Saizarbitoriaren ikuspegi soziologikoaren eta politikoaren adierazpena. Martutene auzoa Donostiako historiaren laburpena izan bada, nobelan, gure historiaren laburpena emango zaigu: oroipenaren nobela bada, Gerra Zibila aipatzen delako, eta horrekin batera, gerra ondoren gertaturikoa Martinen eta Pilarren familien artean; gure garaia aipatzen delako, eta ETAk egin duen eta utzi duen historiaz eta eraginez ezer ezkutatu gabe –eta ezkuturik gabe– hitz egiten duelako. Gure azken historiari buruzko begirada aberatsa eskaini duelako esan dezake Ramon Saizarbitoriak 'Martutene' gure gizartearen metafora bat dela.

'Montauk' nobelako lehen esaldia askotan erabili izan da nobelan zehar, frantsesezko bertsioan, kasik obsesio bihurtu arte: «C'est ici un livre de bonne foi, lecteur».